



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

EUSKARAZKO KASU

GENITIBOA

Gradu Amaierako Lana

Egilea: Ane Elguezabal Odriozola

Gradua: Euskal Ikasketak

Ikasturtea: 2017/2018

Zuzendaria: Xabier Artiagoitia Beaskoetxea

Jakintza-arloa: Euskal Filologia

AURKIBIDEA

0. SARRERA	5
1. –EN ETA –KO KASU MARKA EDO POSTPOSIZIOEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK	6
2. GENITIBORAKO BIDEA	7
2.1. GENITIBOAN SAKONTZEN: EGLU ETA IZEN-SINTAGMAREN EGITURA	7
2.2. X' ESKEMA ETA IS	8
2.3. GENITIBOA EUSKAL GRAMATIKA SORTZAILEAREN BEGIETAN	10
2.3.1. Trask (1983) & Goenaga (1991)	10
2.3.2. Genitiboa DSH-ren ikuspegitik: Eguzkitza (1993) & Artiagoitia (1998)	13
3. GENITIBOAREN INTERPRETAZIOAK IZEN MOTAREN ARABERA	16
3.1. IZEN ARRUNTAK	16
3.2. ARGUMENTU-EGITURADUN IZENAK	18
3.2.1 <i>Irudi</i> izenak	18
3.3. ADITZETIK ERATORRITAKO NOMINALIZAZIOAK	19
3.3.1. Ekintza edo gertaera nominalizazioak	20
3.3.2. Emaidza nominalizazioak	21
4. KASUA ALA POSTPOSIZIOA?	22
5. KASU EZARKETA IZEN-SINTAGMAREN BARNEAN	24
5.1. GENITIBOA ETA FUNTZIO GRAMATIKALAK	24
5.2. BEREZKO KASUA VS. EGITURAZKO KASUA	25
5.3. GENITIBOA EGITURAZKO KASU BEZALA	26
5.3.1. AHS (2007)	26
5.3.2. Artiagoitia (2009) & Gondra (2014)	27
5.4. EUSKARA VS. GAINERAKO HIZKUNTZAK	29
6. DATIBOA GENITIBOA BIHUR DAITEKE?	30
7. ONDORIOAK	31
8. BIBLIOGRAFIA	33

LABURPENA

Izenburuan irakur daitekeen moduan, euskal deklinabideko $-(r)en$ kasu genitiboa da aztergaia lan honetan. Tradizioz $-ko$ atzizkiak, nolabait, genitibo deitura badu ere, zeharo ezaugarri eta funtzio desberdinak ditu izen-sintagmaren barnean; garrantzitsuena, $-(r)en$ genitiboak izenaren argumentuak adierazten dituela eta lekuzkoak, DS argumentuak ez diren gainerako kasu guztiak adierazten dituela.

EGLUren (1985) lanak eragin du ondorengo gramatikalariek (Trask, 1985 eta Goenaga 1991) ere izenondo eta izenlagunak bat-bera bailiran aztertzea, hots, izen-sintagman funtzio berbera dutela adieraztea. Baina Zabalak (1999) azpimarratu du izenlaguna eta izenondoa bereizi behar direla eta ezin daitezkeela kategoria bakartzat hartu. Horrez gain, Abney-ren DSH-ak argitu du determinatzaileak behar duela izan izen-sintagmaren ardatza eta ez izenak. Hortaz, Eguzkitzak (1993) eta Artiagoitiak (1998) DSH oinarri hartuta, DS-ren egitura-sintaktikoaren saioak egin dituzte eta horren baitan genitiboak duen eitea adierazi dute, berauen funtzio desberdinak kontutan hartuta, aurreko ikerlariak egin ez zuten bezala.

Genitiboaren funtzioen aniztasuna ikusirik, berauek aztertzeraz bideratu dira zenbait ikerlan eta izenaren arabera genitiboak izan ditzakeen interpretazio ugariak aztertu dira (Artiagoitia, 2000, 2011; Alexiadou, Haegeman eta Stavrou, 2007; aurrerantzean AHS); hona hemen hiru sail nagusiak: izen arruntek (*liburu*) posesiboa, soilik, dute zilegi; argumentudun izenek (*irudi*) hiru genitibo mota izan ditzakete, betiere, aukeran; aditzetik eratorritako izenak bitarikoak daude, ekintza (*suntsiketa*) eta emaitza (*itzulpen*) izenak.

Kasu eta postposizioek perpausean duten egitekoa aztertu ondoren, genitiboaren ezaugarri ($-ko$ ez onartzea, kasuek bezala) eta funtzioek (izenaren argumentuak adieraztea; beraz, kasuen gisara, esanahi lausoagoa edukitzea) aditzera ematen dute genitiboak antzekotasun gehiago dituela kasuekin (Eguzkitza, 1993; 1997).

Gramatika tradizioan kasua esleitzeko dauden bi moduak aztertuta, hots, berezkoa edo egiturazkoa, AHS (2007) eta Artiagoitiari (2009) jarraikiz, euskaraz ingelesez bezala, genitiboa egiturazko kasuaz gauzatzen da; horrez gain, $-(r)en$ euskarazko genitibo guztien (POS-S-O) errealizazio marka da. Genitiboak sintagman duen kokapenari dagokionez, DS eta QS posizioen artean dago [POSS-Esp]-n, espezifikatzaile anitzeko konfigurazio bat sortzen duelarik. Genitiboen markaketa, $-(r)en$, argumentu mota guztietan bera izateak, nominalizazioaren baitan funtzio gramatikalen neutraltze bat gertatzen dela frogatzen du, hizkuntza nominatibo-akusatibo batzuen kontrara. Izan ere, aipatutako azken tipologiako hizkuntza askotan (gaztelera, ingelesa, grekera...) eredu

ergatiboaren arabera gauzatzen da kasu markaketa izenetik deribatutako nominalizazioetan (Alexiadou, 2017).

Azkenik, nominalizazioan argi dago genitiboak subjektu eta objektu funtzio gramatikalak adieraz ditzakeela, baina ez dago adostasunik genitiboak datiboa ordeztu dezakeen. Elordieta (2001) eta Artiagoitiak (2012) ez-gramatikaltzat dituzte Fernández & Sarasola (2010) ontzat dituzten izen-sintagma (umeen begitazioa/ begitanduera). Badira, hala ere, bestelako datibo klase batzuk zenbaiten ustez, gramatikalak liratekeenak, (*artzainari omenaldia = artzainen omenaldia*); horietan ordea, ergatiboaren eta datiboaren emaitza bat bera da genitibo bihurtzerakoan, beraz, testuinguruak zehaztu beharko du zein kasu den (Fernández & Sarasola, 2010: 67).

HITZ GAKOAK: genitiboa, izenlaguna, nominalizazioa, izen-sintagma, kasua.

0. SARRERA¹

Lan honetan jabetza-genitiboa aztertuko dut eta horren inguruan egun dauden eztabaiden berri ematen saiatuko naiz. Nik *-(r)en* jabetza-genitiboaz jardungo dudan arren, genitiboa hutsean deitzeari zuzenago deritzot ondoren azalduko ditudan arrazoiengatik; batik bat, genitiboak izan ditzakeen esanahi ugarien ondorioz.

Genitiboaren esparruak hain dira zabalak, non guztiak aztertzeak luze joko lidakeen; horregatik, alor jakin batzuetara mugatuko naiz soilik. Hasteko, lehenengo partean, orain arte genitibotzat hartzen ziren *-(r)en* eta *-ko* atzizkien arteko banaketaz arituko naiz. Bigarrean, EGLU abiapuntutzat hartuta genitiboak nolako ezaugarri eta funtzioak dituen azalduko dut; hori behin argi izanik, sintaxi egituran genitiboak duen lekuaz edo funtzioaz nozio batzuk berrikusiko ditut, gu geu bertan kokatzeko eta zein irizpideren arabera jokatuko dudan zehazteko; eta atal honekin amaitzeko, kronologikoki euskal gramatika izen-sintagmaren azterbideak zeintzuk izan diren errebasatuko dut. Ondoren, hirugarren atalean, genitiboak izan ditzakeen interpretazio ugarien berri emango dut, hau da izenak hautatzen dituen argumentuen arabera izango dituen balio anitzen berri: izen arruntak, argumentudun izenak eta aditzetik etorritako izenak aztertuko ditut. Jarraian, laugarren zatian, genitiboa postposizioaren edo kasuaren artean non sartu behar den, eztabaida txiki bat egongo da. Ostean, bostgarrenari helduta, genitiboa sintaxian egiturazko edo berezko kasu bazala gauzatzen den aztertuko dut. Azkenik, seigarrenean, genitiboak datiboa ordezkatu lezakeen ikertuko dut.

Ondorio bezala, aurreratu dezaket genitiboa kasutzat hartzea zuzenagoa dela gainerako kasuekin bat-etortze gehiago dituelako, postposizioen aldean. Lan hau bideratzeko, Artiagoitiaren (1998, 2000, 2009, 2011, 2012) hainbat lanetan oinarritu naiz, betiere Alexiadou, Haegeman eta Stravrou (2007), EGLU (1985), Goenaga (1985, 1991, 2003) eta Eguzkitzaren (1993, 1997) lanak ahaztu barik.

¹ Lanean zehar honako laburdurak erabiliko ditut: A = aditza, ABS = absolutiboa, Adj = adjektiboa, AdjS = adjektibo-sintagma, AKUS = akusatiboa, AS = aditz-sintagma, Asp = aspektua, AspS = aspektu sintagma, DAT = datiboa, Denb = denbora, DenbS = denbora-sintagma, Det = determinatzailea, DS = determinatzaile-sintagma, DSH = Determinatzaile-Sintagmaren Hipotesia, EGLU = Euskal Gramatika Lehen Urratsak, ERG = ergatiboa, Esp = espezifikatzailea, I' eta IM = izen multzoa, IS = izen-sintagma, Izlg = izenlaguna, Junt = juntagailua, NOM = nominatiboa, O = objektua, PoS = postposizio-sintagma, POS = posesiboa, POSS = posesibo sintagma, SEG = Sareko Euskal Gramatika, S = Subjektua.

1. *-EN* ETA *-KO* KASU MARKA EDO POSTPOSIZIOEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK

Gramatika sortzailearen tradizioan egon diren zenbait lanek (Trask, 1985; Eguzkitza, 1993, 1997; Zabala, 1999; Aurnague, 2002; Goenaga, 2003 besteak beste) jabetza-genitiboak eta lekuzko genitiboak ezaugarri eta funtzio desberdinak dituztela aztertu dute. Sintagman duten egiteko diferenteek iradokitzen dute hasierakoa soilik har daitekeela benetako genitibotzat; hemendik aurrera *jabetza genitiboaz* ezaguna denari *genitibo* deituko diot eta *leku genitiboari lekuzkoa*, hutsean. Jarraian, hipotesi horren aldeko argudio gutxi batzuk aipatuko ditut.

Aurnaguek (2002: 2) adierazten du *-(r)en* unitate lexikoari zuzenean erantzen zaiola; hots, DS-ari lotzen zaiola (Goenaga, 2003: 283); ikus bedi (1a). Eta *-ko*, ostera, Aurnaguek (2002) eratorpenezko atzizkitzat du, aurretik flexionatua izan den PoS²-ari erantzen zaiolako; erreparatu (1b) adibideari. Horrez gain, determinatzailearik gabeko IM osagaiari ere elkar dakioke (Trask, 1985; Krajewska, 2018); (1c)-n erakusgarri:

- (1) a. [DS [IS adar(r)] -a] *-ren*.
- b. [PoS [DS [IS etxe] -a] -n] *-ko*.
- c. [IM [I bihotz] [Adj on(e)]] *-ko*.

Eguzkitzaren (1993) adierazpenak ontzat hartuz gero, lekuzkoak adjuntuak dira; izan ere, nahi beste txerta daitezke perpausean eta hauen faltak ez du inolako eraginik sintagmaren gramatikaltasunean; begiratu (2a-b). Horrenbestez, adjektiboen gisa adjuntutzat hartzea omen da zuzenena. Hala ere, salbuespenak daude *-ko* osagarria ere izan daitekeelako (cf. 2c):

- (2) a. Irakasleak mezu bat bidali digu.
- b. Gernikako 30 urteko DBH-ko irakasleak mezu luze bat bidali digu.
- c. Filologiako ikaslea naiz (= filologia ikaslea naiz³).

² *-ko* erantzen zaion PoS, ikerlarien adostasun osoa egon ez arren (Zabala, 1999), Mitxelenez geroztik zenbaitek (Trask, 1985; Aurnague, 2002) inesiboa dela diote, hau da, inesibozko PoS-ri lotzen zaiola *-ko* atzizkia eta honen eransketaren ondorioz, aldaketa morfofonologikoak gertatzen direla, horietako bat inesiboaren *-n*-aren galera izanik (Trask, 1985).

³ Honetaz ikus Artiagoitia (2009: 101-2) eta Artiagoitia (2012: 216-7), non erakusten den *-ko* sintagmak DS argumentuak ez diren gainerako kasu guztietan erabiltzen diren, hots: dela IS osagarri edo argumentuak, dela DS adjuntuak, dela PoS, KonpS, AdbS argumentuak zein adjuntuak.

Aurnaguek (2002: 17) dio genitiboak elementuen arteko harreman erlazionalak gehiago azpimarratzen dituela, *-ko*-ren aldean (cf. 3a-b). Hau da, *-(r)en* genitiboetan eduki *semantikoa* zehatzago eta baldintzatuago agertzen da. Horrez gain, genitiboak izen gobernatzaile baten osagaiak (subjektu/objektu) adierazten ditu (cf. 3c) (Aurnague, 2002: 19):

- (3) a. Sagarrondoaren adarra.
- b. Gernikako irakaslea.
- c. Axularren Geroren idazketa.

Honekin ondoriozta daiteke genitiboak argumentuak adierazten dituela, kasuen antzera. Traskek (1985: 165) lekuzkoari dagokionez, ez dela genitibo mota bat adierazten du. Azaldutako guztia kontutan hartuta, tradizioz deitura antzekoa izan duten atzizkiak bereizi behar lirateke; eta arestian esan bezala, euskal deklinabidean *-(r)en* atzizkiarekin ezagutzen denari, bakarrik, zuzenduko natzaio *genitibo* izenez.

2. GENITIBORAKO BIDEA

Atal honetan, genitiboa aurkeztuko dut; hau da, perpausean duen egitekoa aztertuko dut ikuspegi tradizioaletik eta, honen ondoren, gramatika sortzailean izan diren azalpen saioen berri emango dut.

2.1. Genitiboan sakontzen: EGLU eta izen-sintagmaren egitura

EGLUK (1985: 24) izen-sintagmaren barnean, funtsean, hiru osagai daudela azpimarratzen du; alde batetik, izen-sintagmaren ardatza ezinbestean izan behar den izena; beste alde batetik, elementu atributiboa den adjektiboa, berau izenondoa edo izenlaguna izan daitekeelarik; eta azkenik, determinatzailea. Izenondoak eta izenlagunak bereizi guran, ezkerrean kokatuko dira *-ko* edo *-(r)en* atzizkiak daramatzaten izenlagunak eta eskuinean hutsean doazen izenondoak.

EGLUK (1985: 202) bereziki, genitiboak izan ditzakeen funtzio edo esanahien artean, lau funtzio bereizten ditu:

- (4) a. egilea – ekintza: gizonaren lana

- b. objektua – ekintza : etxearen erosketa
- c. partea – osoa : liburuaren azala
- d. jabegoa: aitaren etxea

EGLUk, eta Goenagak (1991: 855) ere, izenlagun eta izenordainak antzekoak bailiran tratatzen dituzte; hau da, adjektiboen *zakuan* sartzen dituzte. Horren froga dugu EGLUren azterketa deskriptiboa. Horren arabera genitiboak izenari laguntzen dio eta zehaztasun bat ematen; gainera, izenlaguna perpausetik kenduta ere, perpaus gramatikala izaten jarraitzen duela defendatzen du EGLUk. Hona hemen Goenagaren adibide bat (1991: 847) oinarri hartuta eta nik moldatua:

- (5) a. Aitaren etxe zaharra defendatuko dut
- b. Etxe zaharra defendatuko dut.
- c. Aitaren etxea defendatuko dut.
- d. Etxea defendatuko dut.

“Esan daiteke izenlagun hauek adjektibo mota bat direla eta izenondoekin batera (*handi, eder, jori, e.a.*) izenari ñabardura bezalako zerbait emateko erabiltzen ditugula” (EGLU, 1985: 281). Baina osagai biak simetrikoak bailiran aztertzeak arazoak dakartza. Zabalak (1999) azpimarratzen du, esaterako, Euskaltzaindiak «*adjektibo*» terminoa nazioartean erabiltzen ez den bezala darabilela:

“Izan ere, «adjektibo» terminoa gramatika-kategoria nagusietako bat adierazteko erabiltzen da nazioarteko terminologian, baina Euskaltzaindiaren gramatikan «izena laguntzen duen kategoriak» biltzeko erabiltzen da termino hori, hau da, funtzio bat adierazteko. (Zabala, 1999: 110).”

Horrenbestez, gramatika kategoria biak (izenondo eta izenlaguna) simetrikoak bailiran bezala aztertzea ez da zuzena eta arazo horretaz jabetzeko, sintaxiaz eta zenbatzaileez baliatuko naiz, jarraian.

2.2. X' Eskema eta IS


Genitiboa izen-sintagmaren barnean non kokatzen den azaltzeari ekingo diot jarraian. Baina lehendabizi, Chomskyren (1970) lanetik gaur egunera arte izen-sintagma

aztertzeko izan den azterbide nagusia azalduko dut, nik ere lanean zehar horixe bera jarraituko dudalako.

Goenagak (1991) azaltzen du kategoriak ardatzat hartzen dituen X elementu baten islapenak direla, hau da, delako kategoria buru/ardatz horrek beren islapena duela. X hau edozein kategoria lexiko, hots, I(zena), Adj(ektiboa), A(ditza) zein gramatikal edo funtzional, P(ostposizioa) edo Det(erminatzailea) izan daiteke. Izan ere, bereizketa burua den ardatzean baino ez dago, guztiek jarraitzen baitute egitura bera, *X-Eskema* alegia. Horixe defendatzen zuen Chomskyk 1970eko lanean: munduko hizkuntza guztietako sintagma egitura abstraktu bertsuaz eratuak direla.

X-Eskema-ren Teoria⁴ labur azalduta honakoa litzateke: hiru maila sintaktiko daude: burua/X, tarteko islapena/X' eta sintagma/XS. Hala ere, burua izango da bere sintagma eraikitzen duena; hots, ardatzaren nolakotasunaren arabera, egitura era batekoa izango da edo bestekoa. Hortaz, egiturari begira jarritz; hasteko, buruak eta osagarriak (izatekotan) IM deitzen dena osatuko lukete; eta ondoren, IM-ak eta espezifikatzaileak (izatekotan) sintagma edo islapen nagusia. Adibide batean argiago ulertuko delakoan, ikus bedi ondorengo (6) adibide sorta:

- (6)
- a. Zeren beharra du Maddik?
 - b. Maddik janariaren beharra du.
 - c. Maddik janariaren behar handia du.
 - d. Maddik janariaren behar handi larria du.
 - e. $X' \rightarrow$ osagarria + X, $XS \rightarrow X' +$ espezifikatzailea.
 - f. $IM/I' \rightarrow$ Izlg *janariaren* + I *behar*, $IS \rightarrow IM/I' +$ Det *-a*
 - g.



(6d) adibidean *behar* izenak *janariaren* izenlagun osagarria hartu behar du; *handia* eta *larria* adjektibo/izenondoak adjuntuak diren heinean, aldiz, errepikakorrak dira eta, hortaz, ez dira beharrezkoak. Esan beharra dago Goenagak (1991) bere artikulua osatzen

⁴ Hau garatuago aztertu gura izatekotan, ikus bedi Goenaga (1991) eta Artiagoitia (1998).

duen garai hartan *-a* determinatzailea espezifikatzailetzat hartzen zela, hau da, (6g) erreparatzea baino ez dago ohartzeko IS eratzeko egitura klasikoaren adibide garbia dela; izan ere, Abneyk (1987) Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia (DSH) eratu zuen arte, IS gisa aztertzen ziren izen-sintagmak. DSH Artiagoitiaren (1998) lanarekin azalduko dut (2.3.2. puntuan).


2.3. Genitiboa euskal gramatika sortzailearen begietan

Baliagarria iruditzen zaizkit Trasken (1983) eta Goenagaren (1991) arteko zuzenketa lanak (horrela deitu ahal bazaie behintzat), bai eta Eguzkitza (1993) eta Artiagoitiaren (1998) lanak ere. Horren berri emateko kronologikoki begiratu diot genitiboaren deskribapen sintaktikoari; hau da, denboran zehar genitiboa syntaxian egituratzeko izan diren saiakerak eta moduak azaltzen ahalegingunduko naiz.

2.3.1. Trask (1983) & Goenaga (1991)


Traskek aldarrikatzen du euskalari askok izen-sintagma egitura laua bailitzan aztertu izan dutela (Goenaga 1980 da horietako bat). Hori dela eta, berak IS hori hierarkia batek gobernatzen duela azpimarratzen du eta, horrenbestez, gramatikalarik honek izlg IS-ren ahizpatzat eta alabatzen irudikatzen du; adjuntutat, alegia. Hona hemen, Trasken (1983: 603) adibidea moldatua:

(7)



Bestalde, Goenagak (1991) bere lehenagoko lana zuzentzeagatik, egitura berri bat ematen du, baina Trasken analisiarekin erkatuz, ez oso bestelakoa. Gainera, aurreko adibideko (6g) diagramara bueltatuz gero, ohartzekoa da haren egitura bera duela honakoak izen-sintagmari dagokionez, hau da, determinatzailea izan beharrean ardatz nagusia, izena da; Abneyren lana oraindik burutzeko zegoen seinale;


- (8) a. Baionako gizon zahar horiek.
b.




(Goenaga, 1991: 851 (12)).

Goiko (8b) adibide honetan, izenlaguna (PoS erara irudikatua) I'-ren ahizpa eta alaba da; berriz ere, adjuntutat irudikaturik ageri da. Baina egitura horri adjektiboa gehitzean, Goenagak (1991) perpaus bera egituratzeko bi aukera proposatzen ditu:

- (9) a. Joxeren liburu ederra.
b.



c.



Egitura berri bien alde, bakoitzak bere interpretazio propioa duela gaineratzen du Goenagak: (9b)-k “ederra den Joxeren liburua” adieraziko omen luke eta (9c) parafraseatuz gero, “Joxerena den liburu ederra” izango litzateke (Goenaga, 1991: 853). Hala ere, ondo begiratzuz gero, (9b) egitura ezin da zuzena izan; horretaz ohartzeko, zenbatzaileetara jotzea baino ez dago, horiek erakusten baitute asimetria bat dagoela – (*r*)en izenlagunen eta izenondoen (adjektiboen) artean:


- (10) a. * bi Joxeren liburu eder
b. Joxeren bi liburu eder

- c. * Joxeren liburu bi eder
- d. Joxeren liburu eder bi

Honako adibide honetan, perpausa gramatikala izateko, zenbatzaileak [izen + izenondo] multzoaren ondoan joan behar du. Horrenbestez, ondoriozta dezakegu izenaren inguruko egitura txikiago batean elkartzen direla izena eta izenondoa, ondoren horri berori lotzen zaizkiola zenbatzaileak, eta azkenik zenbatzaileak biltzen dituen egituraren gainean gehitzen direla *Joxeren*-en tankerako izenlagunak.

Haratago joanik, Goenagak (1991) perpaus berean bi izenlagun ere aurki daitezkeela iradokitzen du, horrenbestez, horri dagokion egitura bat iradoki du:

(11)



Goenagaren (1991: 855) hitzetan horrelako egiturak eraikitzeak ez dakar arazorik, osagaiak bata bestearen atzetik errekursiboki ezartzen direlako. Berarentzat ez dago arazorik, hain zuzen ere, genitibo ia guztiak bat bera bailiran aztertzen dituelako; beste hitz batzuekin azalduz, bai Goenagak eta baita Traskek ere genitiboa perpaus egituran non kokatu behar den adierazten digute funtzio bakarra izango balu bezala. Hau da, Traskek genitibo guztiak eta Goenagak gehienak⁵ adjuntutat ditu, horra Traskek izenlaguna IS-ren alaba eta ahizpatzat jartzea eta Goenagak IM-ren alaba eta ahizpatzat. Bi ikerlari hauek, ordea, ez dituzte kontutan hartzen hasieran aurkeztutako (4a-b-d) genitiboen funtzio gramatikal ugariak. Izan ere, egile, osagarri eta jabego funtzioak dituzten genitiboak ezin daitezke adjuntutat aztertu, perpausaren funtzio horietako bakarra baino ezin delako agertu; hots, ezin dira bi posesibo edo bi subjektu egon izen-

⁵ Goenagak (1991: 856) genitibo gehienak adjuntutat ditu, gutxi batzuk osagarriak direla aitortzen duen arren.

sintagma berean, juntadura erabili ezean noski; hona hemen aurreko adibideak oinarri hartuta:

- (12) a. gizonaren eta emakumearen lana. b. *gizonaren emakumearen lana.
c. aitaren eta amaren etxea. d. *aitaren amaren etxea.
e. etxearen eta kotxearen erosketa. f. *etxearen kotxearen erosketa.

Jabego, subjektu eta osagarri funtzioen artean, izen-sintagma berean bakarra da zilegi, juntaduraren bidez aberasten ez bada behintzat.

2.3.2. Genitiboa DSH-ren ikuspegitik: Eguzkitza (1993) & Artiagoitia (1998)

Eguzkitzak izen-sintagmaren egitura sintaktikoaren gai berberari heldu dio eta berrikuntza bat gehitu. IS eta DS bereizi ditu Abneyren (1987) DSH jarraituz; hau da, ordura arte izena zen izen-sintagmaren analisisian ardatz nagusia, baina Determinatzaile Sintagmaren Hipotesiak⁶ erakutsi du determinatzaileak behar duela izan ardatza eta IS-k beronen osagarria; beheko (13) zenbakian dago adibide sorta bat. (13a) adibidea oinarri hartuta, ohartu gaitezke D-ak buru baten jokabidea duela, hau da, *-a*-k beti eskatuko du osagarria (13b); erakusleak, aldiz, aukerakoa du (13c-d). Horrez gain, (euskaraz, ingelesez bezala) pertsona izenordainek ez dute Adj, PoS ezta D-ik ere onartzen (13e-g). Amaitzeko, ϕ -tasunak (hots: pertsona/ numeroa/ generoa tasunak) D kategoriak zehazten ditu (13c-d) (Artiagoitia, 1998):

- (13) a. liburua
b. [DS [IS liburu] -a]
c. liburu hau erosi dut.
d. hau erosi dut.
e. *polit gu
f. *Gernikako ni
g. *ni zuek

Honez gain, Artiagoitiak (1998) azpimarratu du edozein genitibo determinatzailearekin (artikulua edo erakuslea) batera egon daitekeela izen-sintagma berean euskaraz (beste hainbat hizkuntzatan legez: gaztelaniaz, frantsesez, italieraz,

⁶ Honi buruz gehiago jakin nahi izatekotan jo Artiagoitia (1998)-ra.

hungarieraz...). Edozein genitibo diot, bi genitibo mota nagusi bereiz daitezkeelako: batetik, gertaera-izenak edo sare tematikoa dutenak (14a-b) edo, bestela esanik, aditzek bezalako sare tematikoak⁷ dituzten izenak (subjektua eta objektua dutenak); eta bestetik, genitibo arruntak edo posesiboak⁸ (14c-d). Argitze aldera, erreparatu Artiagoitiarengandik (1998: 37) ekarritako adibide multzoari:

- (14) a. GAL taldearen S. Mareyren bahiketa hori.
b. Bonaparteren euskalkien sailkapena.
c. Jonen auto berria.
d. Hizkuntza plangintzaren auzi hau.

Honek iradokitzen du euskaraz genitiboek, oro har, ez dituztela betetzen determinatzaileek betetzen dituzten gune berak izen-sintagmaren barruan⁹. Ondorioz, bi espezifikatzaile gune ditugu: batetik, izenarena eta, bestea, determinatzailearena. IS-ren osagarri sare tematikodun objektua edo barne argumentua baino ezin da egon (izen arruntek ez baitute osagarririk onartzen) eta espezifikatzaile gunean subjektua edo kanpo argumentua lekukotzen da; azkenik, DS-ren espezifikatzailean posesiboa legoke (Artiagoitia, 1998).

Esandakoa irudikatze aldera, aditzetik eratorritako izen batean eta *irudi* izen batean oinarrituko naiz. Lehenengoarekin hasteko, IS-ko osagarrian objektua edo barne argumentua *kotxearen* egongo litzateke eta espezifikatzaile gunean *Jonen* kanpo argumentua edo subjektua. Hau argiago ulertzeko, begiztatu (15):

- (15) a. Jonen kotxearen erosketa (Eguzkitza, 1993: 169 nik moldatua).

⁷ Sare tematikoaren barnean: *irudi* izenek (i) (*argazki, irudi, koadro, poema ...* lirateke) posesiboa, subjektua eta objektua hartzen dituzte; eta aditzetik eratorritako (ii) izenek (*bahiketa, erosketa* (emaitza), *suntsiketa...*) subjektu eta objektua hartzen dituzte:

i. Piccassoren Gernikaren koadro. ii. Trumpen munduaren suntsiketa.


Barkatuko zait, horren laburpen xumea egitea, baina hau sakonago jorratuko dut ondorengo atalean.

⁸ Benetako posesibo/genitiboak izen arruntak osatuak dira eta izenaren arabera, interpretazio ugari izan ditzakete (autoretza, lotura...); osagai kopuruei dagokionez, posesibo eta subjektu batez osatuak daude.

⁹ Ingeleseaz ez bezala; izan ere, ingelesez, genitibo saxoia bateraezina da determinatzaileekin, oro har.


i. John's book. ii. The book. iii. John's the book.

b.



Bigarrenik, *irudi* izen bat (Eguzkitza, 1993: 181) oinarri harturik, DS-ren espezifikatzailean posesiboa dago *Von Thyssen-en*, ondoren, IS-ren espezifikatzailean kanpo argumentua *Riberaren*, eta jarraian, IS-ren osagarritzat barne argumentua *eskalearen* dugu.

- (16) a. Von Thyssen-en Riberaren eskalearen irudia
 posesiboa egilea/subjektua gaia/objektua
 b.



Horrez gain, Artiagoitia (1998) proposatu du benetako posesiboek (14a-b) kuantifikatzaileen aurretik joan beharra dutela perpausa gramatikala izan dadin.

- (17) a. Arrateren lau litro ardo (Artiagoitia, 1998: 48).
 b. *Lau litro Arrateren ardo (Artiagoitia, 1998: 48).

Hala ere, Artiagoitiak ondorengo (2009) lanera arte ez du aipatuko genitibo guztiek egon behar dutela Q-en aurretik, hau da, sare tematikoko subjektu eta osagarriak barne. Ondorioz, DSH ikuspegiak konpondu gabe uzten duen arazo bat da, ondoren 5.3.2. azpiatalean berriro aztertuko dudana.

3. GENITIBOAREN INTERPRETAZIOAK IZEN MOTAREN ARABERA

Honako arloa adar askotakoa izan daiteke eta adar horiek bide anitzetatik eraman gaitzakete, baina lan honek zeharka baino ez duenez gurutzatzen, beharrezko argibideak baino ez ditut seinalatuko.

Artiagoitiak (2000) Grimshaw-i (1990) jarraikiz, oro har, hiru izen mota bereizten ditu: alde batetik, izen arruntak daude, hauek ez dute argumentu-egiturarik baina genitiboarekin ager daitezke. Beste alde batetik, argumentu-egituradun izenak daude (*irudi*, senide eta aditzetik etorritako emaitza nominalizazioak), eta honakoek aukeran dituzte subjektu-osagarriak. Azkenik, argumentu-egitura duten aditzetik etorritako gertaera edo prozesu nominalizazioak; honakoek, aldiz, behar-beharrezkoak dituzte argumentuak, autore batzuen arabera, behintzat (ikus AHS, 2007: 496).

Nolabaiteko sarrera bat egin ostean, izen mota bakoitza pixka bat jorratzeari ekingo diot. Hasteko beraz, lehenengoarekin abiatuko gara, hots izen arruntekin.

3.1. Izen arruntak

Izen arruntek ez dute Θ -rolik ezartzen, eta ez dute argumentu-egiturarik ere edukitzen, baina posible dute genitiboarekin (bakarra) agertzea (Artiagoitia, 2000). Genitibo hau benetako posesibo edo lekutasun posesiboaz ere ezaguna da (Artiagoitia, 1998);

- (18) a. Jonen kotxea.
 b. *Jonen Mirenen kotxea.
 c. Jonen arrebaren kotxea.

Benetako posesiboetan ez-gramatikala da (18b) *Jonen* eta *Mirenen* aldi berean *kotxea* modifikatzen ari direlako; bestalde, gramatikala dugu (18c), izan ere kasu horretan, *Jon* DS-ak *arriba* izena modifikatzen du eta *Jonen arrebak kotxea*. Beste era

batera azaltzeko, *Jonena da arreba* eta *Jonen arrebarena da kotxea* (Artiagoitia, 1998: 38).

Artiagoitiak nahiko zaila deritzo *kotxe* izenak argumentu-egitura duela aitortzeari. Genitibo arrunt honen interpretazioa (jabetzaz kanpo) askotarikoa izan daiteke (Artiagoitia, 2000: 140); erreparatu ondorengoei:

- (19) a. Ainhoaren begia (edukitze besterenezina, Ainhoa eta begiak banaezinak).
b. Euskararen arazoa (lotura, euskarari lotutako arazoa).
c. Lauaxetaren olerkiak (autoretza, Lauaxeta da autorea)

(19a) adibidean Ainhoa begiaren jabea da baina zati-oso erlazioan gehiago daudela justifikatzen du sintaxilariak. (19b)-ri arreta eskainita, era berean, euskara ez dela arazoaren jabea edo egilea, lotura erlazioa baino ez dago beraien artean.

Zati-oso esanahia EGLUK (1985) eta AHS-k (2007:477) ere gehitzen dute beren sailkapenean; horra (20) adibidea. Kasu horrek aditzera ematen du liburuak badituela hainbat parte eta horietako bat *azala* dela; jabetza esanahitik nahiko urruntzen da, beraz;

- (20) Liburuaren azala (EGLU, 1985: 202).

Askorik luzatu gabe, soilik aipatu behar da AHS-ek (2007) bi posesibo klase bereizten dituztela *alienable possession* “besterengarria” eta *inalienable possession* “besterenezina”¹⁰ biek jabea eta objektu elementua lotzen dituzten arren, bata bestearen arteko harreman lotura ezberdina islatzen dute. Lehengoak jabearen eta objektuaren artean ez du menpekotasun harremanik (21). *Liburuak*, bere horretan, ez du jabearen beharizunik, hau da, *liburua*-z hitz egin dezakegu inongo jaberik aipatu barik. Hori gutxi balitz, *Jon* eta *liburua*-ren arteko erlazioa hainbatekoa izan daiteke: itzultitakoa, erositakoa, idatzitakoa, eskuratutakoa... Besterenezinetan, ostera, jabetza erlazioan elementu bien artean semantika menpekotasuna dagoela nabaritzen da, hau da, objektua menpeko elementua da beste objektu batek berariaz zehazten duelako, (cf. 19). (19a) adibidez, *begia* objektua *Ainhoa*-k zehazten du, azken honen menpe dago, hortaz.

¹⁰ Besterendu = (zerbaiten jabetasuna) besteren batengana igaro edo igaroarazi.

(21) Jonen liburua (AHS, 2007: 552).

Agerian dago, beraz, genitiboak gutxitan adierazten duela jabetza hutsa (AHS, 2007:547; Artiagoitia, 2000: 140).

3.2. Argumentu-egituradun izenak

Izen mota hauek aditzena bezalako sare tematikoa dute; hau da, subjektu-osagarriak izan ditzakete. Artiagoitiak (2011) osagarria hautatzen duten izen arrunten inguruan sailkapen bat egin zuen Sareko Euskal Gramatikan (SEG):

- Izen abstraktuak: *ardura, aukera, defentsa, kezka...*
- *Irudi* izenak: *argazki, erretratu, irudi* (16), *koadro, poema...*
- Erlaziokoak diren beste izen konkretu batzuk: *lagun* (22), *jabe, kide, zale...*
- Senidetasun izenak: *ama, aita, alaba, arreba* (18c) *izeko...*
- Kokapen izenak: *aurre/atzea* (23), *azpi/goi, ezker/eskuin, inguru...*

(22) Naturaren lagunak gara.

(23) Eraikinaren atzean utzi dute kotxea.

Interesgarria deritzot *irudi* izenak gehiago lantzeari, beraz, horri ekingo diot ondorengo azpiatalean

3.2.1 *Irudi* izenak

Irudi izenak deritze *margolan, argazki...* bezalako izenei. Artiagoitiak (2000) adierazten du honakoek erlaziozko izen arrunten moduan ez dutela gertaera argumenturik, hau da, ez dute ezer kontatzen, baina hiru *izenlagun* mota izan ditzakete aukeran¹¹: posesiboa, subjektua eta osagarria; (16) adibidean irakur daitekeen moduan eta hemen berriz errepikatua (24) bezala:

(24) Von Thyssen-en Riberaren eskalearen irudia.

¹¹ Ustezko argumentu hauek beti daude aukeran, senidetasun izenetan legez. Posesiboa zentzu hertsian ez da benetako argumentua (Artiagoitia, 2000: 137).

Von Thyssen (Madrileko Arte-Museoa) *irudia*-ren jabea da (berak du irudia), horregatik da posesiboa; bestalde, *Ribera* (marrazkilaria) *eskalearen irudi* horren egilea da; eta azkenik, *irudi* hori *eskalearen*-a da, gaia, beraz.

3.3. Aditzetik eratorritako nominalizazioak

Artiagoitiak (1998) eta AHS-k (2007: 478) nabarmentzen dute aditzetik eratorritako izenek (*bahiketa* (25a), *erosketa* (15), *suntsiketa* (25b), *egiaztapen...*), sarritan, aditzen osagarri-hautapenari eusten diotela, neurri handi batean. “Aditzak nolako osagarria, izenak halako osagarria izaten du, eratorpen atzizkiak berak eragin dezakeen aldaketa alde batera utzita” (Artiagoitia, 2011). Horrenbestez, izen hauek eratorri diren aditzen ezaugarri paraleloak dituzte osagarriak hautatze aldera, hori dela eta, objektu eta subjektuak eduki ditzakete:

- (25) a. GAL taldearen Mareyren bahiketa (Artiagoitia, 1998: 47 (35)).
- b. Trumpen munduaren suntsiketa.

(25a)-n *GAL taldea* subjektu edo kanpo argumentua da eta *Marey* objektua edo barne argumentua. Hurrenkera bera ageri zaigu (25b)-n, *Trump* subjektua eta *mundua* objektua baita.

Honakoa, ordea, ezin daiteke orokortu, salbuespen gutxi batzuk daudelako. Izan ere, aditzetik eratorritako izen batzuek izen arrunten pareko jokabidea erakusten dute; horietako adibideak dira, esaterako, *sarrera* (26a) eta *azterketa* (26b) hitzak. *Sarrera* hitza *sartu* aditzetik dator eta *azterketa* *aztertu* aditzetik. Hala ere, hitz hauen hiztegi sarreretara joz gero, esanahia guztiz aldentzen da aditzak izan dezakenarengandik, Artiagoitia (2011): “ikuskari edo emanaldi batera sartzeko aukera ematen duen txartelari” (Sarasola, I. 2007: 699). Honi dagokionez, Artiagoitiak dio *txartel* izenak izen arruntaren adiera duela. Bigarren adibidearekin berdin eginez: “norbaiti, zerbaiterako gauza den edo gai batez zenbat dakien ikusteko egiten zaion proba edo proba multzoa” (ibidem:152); honenbestez, Artiagoitiak (2011) azaltzen du *azterketa* horrek objektu fisiko bat ere izenda dezakeela:

- (26) a. Museoan sarrera kartelaren bila ibili ginen eta gure aurrean geneukan.
- b. Gosaldu ostean, herenegun egindako osasun-azterketaren bila noa.

Horrenbestez, kasu horietan izenek ez dute aditzekin inolako harremanik izango. Baina Txirritaren ondoko adibide ezagunak aditzera ematen duenez *sarrera* izenak ekintza-interpretazioa ere onar dezake (Artiagoitia, 2011):

(27) Ikusgarria izan zen zure Donostiako sarrera (nik moldatua).

Dena den, aparteko kasu hori alde batera utzirik, aditzetik eratorritako nominalizazioen baitan, bi multzo nagusi bereiz daitezke; alde batetik, ekintza edo gertaera nominalizazioak, eta bestetik, emaitza nominalizazioak (Artiagoitia, 2011).

3.3.1. Ekintza edo gertaera nominalizazioak

Grimshaw (1990) eta Artiagoitiaren (2000) hitzetan nominalizazio mota hauek egongo lirateke benetako argumentu egituratik hurbilen. Hau da, honelakoetan izenak (28b) sortzen duen egitura, nahiko hurbil dago aditzak (28a) perpausean eratzen duen egituratik (*Musika-taldea* subjektua eta *disco berria* objektua). Grimshawek dio nominalizazio mota hauek baino ez dutela argumentu-egiturarik; eta hain zuzen, horrek bereizten dituela emaitza nominalizazioez (Grimm & McNally, 2014). Grimshawren arrazoi nagusia da E gertaera-argumentua kanpo-argumentua dela (Artiagoitia, 2000).

- (28) a. Musika-taldeak disko berria aurkeztu zuten.
b. Musika-taldearen disko berriaren aurkezpena.
c. aurkezpen: \underline{E} , egilea = \emptyset , gaia.

Grimshawek (1990) adierazten du nominalizazio mota hauek nahitaez behar dutela osagarria; subjektua, aldiz, aukerakoa dute, hau da, gertaera kanpo argumentu bihurtzean subjektua *argumentu-adjunktu* modukoa bihurtzen dela dio (Artiagoitia 2000 eta Grimm & McNally, 2014). Artiagoitiak (2000) Grimshawren hitzak dakartza, euskararako ere murriztapen berak balio duelakoan:

- (29) a. ? Aurkezpenak 20 minutu iraun zuen.
b. ? Ahantzi zait kontaketa zor dizudala.
c. ? Turkoek saria eskaini zuten atxiloketa errazten zuen edonori.

(Artiagoitia, 2011).

(29a) ez zait iruditzen arraroa, baliteke, aurkezpena hitza sarritan erabili edo entzun izana, eta dagoeneko, normaltzat izatea perpausa bere horretan. (29b-c)-n, ostera, osagarriaren falta somatzen da, baina perpaus horiek ere ontzat emango nituzke hizlariaren testuinguruan kokatuta egongo banintz. Hau da, mintzakideak erreferentzia egingo balio lehenago aipatutako horri, entzulea horren jabe izango litzateke, eta horrenbestez, ez luke arazorik osagarria ezabatuta ere perpausa egokiro ulertzeko.

3.3.2. Emaidza nominalizazioak

Grimshawri jarraikiz, hauek ez dute benetako argumentu-egiturarik ekintzen kontrara; aitzitik, hauek gertaeraren ondorioa den ekoizpena izendatzen dute. Kasu honetan, “izenaren kanpo-argumentua ez da gertaera bera, izenak adieraz ditzakeen gauzen multzoari zuzentzen zaion R argumentua baizik” (Artiagoitia, 2000: 138). Hobeto ulertzeko R argumentuak aditzaren barne argumentuari egiten dio erreferentzia. Esaterako, (30) adibidean *itzulpen* izenak ekintza baten emaidza izendatzen du, hau da, zerbait itzuli ondorengo emaidza fisikoa da (*liburua*) (Artiagoitia, 2011).

- (30) a. Arestiren itzulpen guztiak liburu batean bildu dituzte.
b. itzulpen: \underline{R} , egilea = \emptyset <R = gaia>: «norbaitek itzulitako gauza(k)».
- (Artiagoitia, 2000: 138).

Hori horrela izanik, *itzulpen* izenak itzultzearen ekintza azaldu beharrean, itzultzearen ekintzaren emaidza den *Arestiren itzulpen guztiak*, hots, objektu fisikoak izendatzeko erabiltzen da (Artiagoitia, 2000). Horrenbestez, Artiagoitiak (2000: 138) azaltzen du izen mota hauek hurbilago daudela izen arruntek izaten duten argumentu-egituratik eta hauek bezala emaidza nominalizazioek ere R argumentua dute kanpo argumentu.

AHS (2007: 496) eta Grimm & McNallyk (2014) aztertu dute eta defendatzen dute (batez ere azken hauek) Grimshawren eta honen ondorengo sintaxilarien hipotesia ez dela zuzena, hots, ez dagoela berezko bereizketarik ekintza eta emaidza nominalizazioen artean; izan ere, ondorioztatu dute izenek ez dutela argumenturik exijitzen¹². Grimm &

¹² Williams-ek (1987) ere argumentudun eta gabeko nominalizazioen artean ez dagoela bereizketarik dio; honen iritziz, guztiak argumentu-egiturarekin osatuta baitaude (AHS, 2007: 496).

McNally-k COCA corpusaz baliatuta, nominalizazioen argumentu aukeraketaz gain, azken hauen balioa testuinguruaren arabera dela ziurtatu dute.

Atal honetan esandakoa laburbilduz, genitiboak izen arruntekin posible diren posesiboak adierazteko eta argumentu-egitura izan dezaketen izenen DS argumentuak adierazteko erabiltzen dira. Azken hauen artean, posesiboa ere posible bada, genitiboaren bidez adierazten da (cf. 24a).

4. KASUA ALA POSTPOSIZIOA?

Bakoitza zer den eta genitiboa bietatik zeinen barruan txertatuko genukeen azaltzen hasi aurretik, interesgarria deritzot Alfonso Irigoienek (Eguzkitza, 1997: 40) euskal deklinabideari dagokionez esan zuenari. Horren ustez, euskal gramatikan ez litzateke deklinabiderik egongo, baldin eta latinezko irizpideetan oinarrituko bagina. Izan ere, latinez ez bezala, euskaraz hitz bat deklinatzerakoan, ez da hitzaren enborra aldatzen; hori dela eta, euskarari dagokionez, postposizioak liriateke guztiak, euskal gramatikan kasuek beti dutelako forma bera, numeroa izanik aldagarri bakarra (Eguzkitza, 1997).

Lehendabizi, postposizioak azaltzen hasiko naiz, beraz. Hasteko postposizioek ez dute aditz laguntzailean komuntadurarik eragiten; hau da, aditz edo inflexio sintagmarekiko askeak dira, eta sarri adjuntuak dira; bigarrenik, eduki semantiko gardenagoa dute, hau da, aditzak ez die ematen bere esangura, sintagmak berak berezkoa baitu; azkenik, *-ko* atzizkia onartzen dute (Eguzkitza 1993).

- (31) a. Gatibuk kontzertua Gernikan eman zuen.
b. Gatiburen Gernikako kontzertua.

Kasuek, ordea, bestelako ezaugarriak dituzte; hasteko, ERG, ABS eta DAT kasuek komuntadura egiten dute aditz laguntzailearekin; ondorioz, erlazio gramatikalak (subjektua, osagarriak eta bigarren osagarria) adierazten dituzte edo eduki semantiko lausoagoa dute, baina hauek betiere aditzaren beharizanen menpe daude; hau da, aditzak behar dituen argumentuak baino ezingo dira agertu perpausean; azkenik, kasuek ezin dute *-ko* hartu (Eguzkitza, 1993):

- (32) a. Anek amari arrosak oparitu dizkio.
b. Anek/ arrosak + -ko → *Aneko/ *arrosako

- c. Ane/ arrosa + -ko → *Aneko/ *arrosako
- d. Aneri/ arrosari + -ko → *Aneriko/ *arrosariko
- e. Aneren/ arrosaren + -ko → *Anerenko/ *arrosarenko

(Artiagoitia, 2009: 100 (11) oinarri hartuta).

Genitiboari dagokionez, goiko (32e)-ri erreparatzea nahiko da genitiboak kasuen pare jokatzeko duela ikusteko. Hau da, genitiboak, kasuen moduan, ez du zilegi *-ko* atzizkiarekin agertzea. Bestalde, euskaraz ez dago izen sintagmaren barruan genitiboaren eta izenaren arteko ageriko komunztadurarik, beste hizkuntza batzuetan ez bezala; begiztatu (33a) Yupi Alaskako hizkuntza (Abney, 1987: 42) eta (33b) hungariera (Abney, 1987, 44):

- | | | | | |
|------|-----------------|----------|-----------------------|---------------------|
| (33) | a. angute-t | kuig-a-t | b. Mari | vendeg-e-∅ |
| | gizonen | ibaia | Mari-NOM | gonbidatua- pos-3sg |
| | “gizonen ibaia” | | “Mariren gonbidatua”. | |

Hizkuntza hauetan, genitiboak ERG eta ABS-en moduan komunztadura egiten du izenean; hortaz, euskaraz horretarako morfema balego, era berean jokatu lukeela pentsa daiteke.

Kasuen antzera, genitiboak ere funtzio gramatikalak adierazten ditu. Aurreko atalean azaldu bezala, genitiboak subjektu eta osagarri erlazio gramatikalak adieraz ditzake eta hauek ergatibo eta absolutiboaren rol bera jokatzeko dute, aintzat hartu (25b) oinarri hartuta:

- (34) a. Trumpek mundua suntsitu du.
- b. Trumpen munduaren suntsiketa.

Adibide honek, AHS-ek (2007:478) adierazi bezala, erakusten du paralelismo bat dagoela ERG-ABS eta genitiboko subjektu-osagarrien artean. Eguzkitzari (1997) jarraikiz, aipatutako lau kasuon artean, batzuek perpausean subjektu-osagarri funtzio sintaktikoak betetzen dituzte, eta besteak, (genitiboak) izen-sintagmaren barruko funtzio gramatikalak; halaber, kasuok (genitiboa barne) ez dute eduki semantiko propiorik, postposizioen kontrara.

Ildo beretik, Goenagak (1985) lanean zehar azaltzen du bat-etortzeak daudela aditzaren eta izen eratorriaren artean. Horrez gain, Eguzkitzarekin bat egiten du genitiboa funtzio gramatikalen adierazle dela adieraztean.

Horrenbestez, Goenagak (1985) eta Eguzkitzak (1993, 1997) iradoki duten bezala, genitiboa, ergatibo, absolutibo eta datibo kasuekin batera, euskal deklinabidean kasutzat hartu beharra dago.

Hortaz, behin euskal gramatikan kasuak eta postposizioak bereizirik eta bata bestearen ezaugarriak argiturik, ondorengo puntuan, genitibo kasua nola esleitzen den azalduko dut.

5. KASU EZARKETA IZEN-SINTAGMAREN BARNEAN

AHS gramatikalariek (2007) (aditzetik eratorritako) izenen eta aditzen argumentu egituren artean antzekotasunak daudela argudiatzen dute. Bietan (cf. 34a-b) *Trump suntsitu* aditzaren eta *suntsiketa* izenaren egilea/agentea da eta *mundua* gaia bezala interpretatuta dago.

Gramatikariok bat datoz izen eratorriek aditzen argumentu-egituraren isla dutela; eta hori dela eta, dagokien izenak edo buru funtzional batek izenaren argumentuei kasua ezartzen diela. Beste hipotesi berririk ezean, kasu ezarketa dela eta, bi aukera daude: berezko kasua eta egiturazko kasua.

5.1. Genitiboa eta funtzio gramatikalak

Euskarazko genitiboak posesiboa (35a = aurreko 21), aditz ez-akusatibo baten subjektua (35b), aditz iragankorretako subjektua (35c) eta osagarri (35d) funtzio gramatikalak adieraz ditzake:

- (35) a. *Jonen* liburua
- b. *Poetaren* etorrera.
- c. *Erromatarren* Galiaren konkista.
- d. *Kotxearen* erosketa.

Funtzio horiek guztiak adierazteko, kasua eta Θ -rola (jabea, esperimantatzailea, egilea/agentea, gaia...) nola ezartzen diren aztertuko dut jarraian.

5.2. Berezko kasua vs. egiturazko kasua

Kasu Iragazkiak behartzen du DS guztiak kasu abstraktu bat jasotzera. Hori horrela izanik, DS bakoitzerako kasu ezarle bat identifikatzea baino ez dago. Kasu ezarle hori azaltzea da, hain zuzen ere, azpiatal honen helburua. Honi dagokionez, arestian aurreratu bezala, bi kasu bereizi izan dira: berezko kasua eta egiturazko kasua.

Lehenengoarekin hasteko, (35a) baliatuko dut. Adibide horretan, Duguinek (2010) Chomskyri (1986) jarraituz, *Jonen* DS-ari genitiboa I-k ezartzen diola azaltzen du eta era berean, jabe Θ -rola ere I burutik jasotzen duela. Honenbestez, izenak aldi berean, kasua eta Θ -rola ezartzen omen dizkio DS-ari; ondorioz, kasua eta Θ -rola beti elkarturik esleitzen direnez, berezko kasua Θ -rol jakin batzuekin lotuta dago. Amaitzeko, berezko kasua inolako mugidarik gabe ezar daiteke¹³, hau da, argumentuak bere *jaiotza-tokian* dagoela jasotzen ditu kasua eta Θ -rola (Duguine, 2010: 153).

Bestalde, egiturazko kasuak *Mugida hatsarrea* errespetatuz, *jaiotza-tokitik* mugitzean, soilik, jasoko du DS-ak Θ -rola. Hala izanik, DS-ak edozein Θ -rol jaso dezake, kasuaz independentea delako. Horrez gain, *Komunztadura Hatsarreak* adierazten du egiturazko kasua jaso badu, aditz laguntzailean komunztadura izango duela (Duguine, 2010).

Tradizionalki datibo, genitibo eta partitibo kasuak berezko kasutzat aztertu izan dira; izan ere, adjektibo eta izenak berezko kasuaren ezarle prototipikotzat hartu izan dira (AHS, 2007: 542).

Hori defendatzen dutenatarikoa da Eguzkitza (1993). Honen aburuz, arestiko (34b) *Trumpen munduaren suntsiketa* adibidea berriz mahai gainera ekarriaz, *suntsiketa* izen eratorri horrek *suntsitu* aditzaren theta egitura bera mantentzen du. Hortaz, bi theta-rol ditu esleitzeko gaia eta agentea/egilea: azken hau *Trump* kanpo argumentuari ezartzen dio eta *munduaren* osagarri horrek *suntsiketa* izenetik gaia theta-rola eskuratzen du.

Eguzkitzak defendatzen du osagarria ezin goratu daitekeela bere *jaiotza-tokitik* [DS-Esp]-era, era horretara perpausa ez-gramatikala bilakatzen delako. Izan ere, osagarriaren mugida izena den buruak gobernatzen du eta horrenbestez, ez da Katgoria Hutsaren Hatsarrea urratzen. Hortaz, inora mugitu gabe, bere *jaiotza-tokian* dagoela jasotzen du kasua. Hau da, beste hiru kasuetan (ergatibo, datibo eta absolutibo) ez bezala, berezko

¹³ Hala ere, Chomskyk (1986) ezarketa eta gauzapena bereizi zituen aditzera emanek kasua ezartzen den lekutik kanpo burutu daitekeela.

kasuaren bitartez lortzen du osagarriak *-(r)en* marka. Hortaz, Eguzkitzak *-(r)en* marka berezko kasuaren errealizazioa dela azpimarratzen du. Gainera, izenak gobernatzen duenez bere osagarria, *-(r)en* atzizkiaren esangura izenaren araberakoa izango da, hots, atzizkiaren eduki semantikoa izenaren eraginpean dago (Eguzkitza, 1993).

Baina Eguzkitzaren (1993) analisisa zehaztugabea da, aurreko puntua ontzat hartzen bada. Izan ere (5.1.)-an ohartu gara, genitiboz markatutako DS argumentuak askotarikoak direla eta edozelako Θ -rola izan dezaketela: jabea, egilea, agentea, esperimentatzailea... Ondorioz, Eguzkitzak ez du azaltzen Θ -rol anitz horiek nola gauzatzen diren berezko kasuaren bitartez. Hain zuzen ere, horrek dirudi arrazoirik interesgarriena euskarazko genitiboa egiturazko kasuaren bitartez ezarria dela aintzat hartzeko; aurretik esan bezala, Θ -rolen aniztasuna egiturazko kasuarekin lotzen delako.

5.3. Genitiboa egiturazko kasu bezala

Chomskyk (1970), izen eratorriak eta honi dagokion aditzak egitura lexiko bera konpartitzen dutela adierazi zuen. Biek, hots, izen eratorri zein aditzek subjektu eta osagarriak dituztela gaineratu zuen eta posizio bakoitzari dagokion theta-rola ezartzen diotela (AHS, 2007).

Jarraian, genitiboa egiturazko kasuak gauzatzen duela aztertu duten ikerlari aipagarri batzuen lanak azalduko ditut; batetik, AHS (2007) eta bestetik, euskararen genitiboan oinarritzen diren Artiagoitia (2009, 2012) eta Gondra (2014).

5.3.1. AHS (2007)

AHS-k izen eratorrien kasu ezarketari eskainitako pasarteetan, genitiboa berezko kasutzat hartzeak arazoak dakartzala diote. Lehenik eta behin, ingelesean *of* genitiboaren kasu-marka dela adierazten dute, baina nominalizazio berean bi genitibo badaude ezin daitezke biak *of* kasuaz markatu; ikus bitez (36a) ingelesezko eta (36b) katalanezko adibideak:

- (36) a. *the destruction of the city of the barbarians.
b. *l'afusellament de l'escamot d'en Ferrer Guardia
exekuzioa brigadaren Ferrer Guardiaren
'Brigadaren Ferrer Guardiaren exekuzioa'

(AHS, 2007: 543 euskarara nik itzulia).

Aurrekoak gramatikalak izan daitezzen, agente/egileak preposizio sintagma batek lagunduta joan beharra dute, kasu honetan, *by* edo *per*.

Bigarrenik, AHS ikerlariak argudiatzen dute nominalizazioan ageri diren erro lexikalak aditz bezala ageri direnean ez direla berezko kasuaren bitartez ezarriak; hortaz, kasu genitiboa ezin gauza daitekeela berezko kasuaren bitartez.

AHS-k jasotzen duenaren arabera Van Hout & Roeper-ek (1998) kasu ezarketan nominalizazioak aditzak bezala jokatzen duela diote; nominalizazioko atzizkiak berak xurgatzen duela dagokion kasua, forma pasiboak¹⁴ egiten duen moduan.

Alexiadou (2001a) eta Borer-ek (2003) (ingelesezko kasuan) *oftxertaketa* egiturazko kasuaren gauzapentzat dute. Batez ere azken honek, Van Hout & Roeper-ekin batera, barne argumentuak egiturazko kasua hartzeko [AspS-Esp]-ra mugitzen dela diote (AHS, 2007: 544), nahiz eta hor esleitzen den kasua (genitiboa) perpausean ohikoa denaz bestelakoa izan.

5.3.2. Artiagoitia (2009) & Gondra (2014)

Artiagoitiak (2009, 2012) eta, honi jarraikiz, Gondrak (2014) defendatzen dute, euskarazko genitiboak egiturazko kasuaren bitartez gauzatzen duela kasua. Sintaxilari horien arabera, D-ren azpiko lehen burua den POSS-ri lotzen zaizkio POS, S eta O genitiboak. Genitibo (POS-S-O) guztiak POSS-ri erkatzeak adierazten du espezifikatzaile anitzeko konfigurazio bat sortuko dela eta *jaiotza-tokiko* hurrenkera bera mantenduko dutela, hots, “gorago dagoen sintagma goragoko espezifikatzailean amaituko du eta beherago dagoenak beheragoko espezifikatzailean” (Artiagoitia, 2009: 110)¹⁵.

Posesibo hauek nahiko goian daudela defendatzeko hizkuntza anitzen jokabidea aztertzen du Artiagoitiak (2009: 107 (34 a-b)):

- (37) a. katalana: les seves nouvelles de Nabokov.
b. italiara: il mio libro.

¹⁴ Ingelesari begiratu behar zaio forma pasiboa irudikatzeko, euskarak ez baitu:

(i) The giro was sponsored by Indurain.

¹⁵ Honen adibidetzat eta justifikaziotzat dakar Artiagoitiak (2009) NZ-mugidaren fenomenoak, Richards-ek (2001) proposatu bezala: galdetzaile bi aurreratzen direnean, goragotasuna errespetatzen da:

i. Nork zer erosiko du biharko mendi-martxarako?

Hala ere, urrutira joan gabe, euskaran bertan ere egoera bera nabari daiteke (Artiagoitia, 2009: 107 (33 d)):

- (38) a. Piccassoren zezenaren lau irudiak.
 b. [DS Piccassoren_i zezenaren_j [QS lau [t_i t_j irudi]] [D -ak]].
 c. Nire hainbat txakurrekin gogoratu naiz (Gondra, 2014: 21 (39a)).
 d. * Hainbat nire txakurrekin gogoratu naiz (Gondra, 2014: 21 (39b)).

Goiko adibideari erreparatzea baino ez dago, ohartzeko (38c-d) *hainbat* QS *nire* posesiboaren ondotik egon behar dela, hau da, *nire* IS-n sortua bada ere gorantz mugitu beharra du eta QS-ren goialdean kokatu (Gondra, 2014).

Artiagoitiak Richards-en (2001) analisia hartzen du aintzat POS-S-O hurrenkera zurruna dela argudiatzeko. Honen arabera, goragotasuna errespetatuko da eta hiru genitiboak [POSS-Esp] hirukoitzean kokatuko dira.

- (39) [DS [PosS Monzonen_i Leizarragaren_j Bibliaren_k ... [IS t_i t_j t_k itzulpen]-a]
-

Gondraren (2014) hipotesia da emaitza eta ekintza izen eratorrien erro lexikoak neutroak direla eta egitura sintaktikoaren arabera gauzatzen zaiela kategoria, hots, izena bada buru funtzionala, erroa izena izango da eta berdin aditzarekin. Horrenbestez, proposatzen du as eta AS espezifikatzaileetan *jaiotzen* zaizkiela kanpo eta barne argumentuak, hurrenez hurren. Emaidza eta ekintza izenei dagokienez, barne argumentua biek onartzen dute (emaitza izenek aukeran); kanpo argumentua, ostera, emaitza nominalizazioek adjuntu bezala baino ez dute posible. Gainera, kasu ezarketa egiturazkoa dela aipatzen du, zeina POS buruaren bidez gauzatzen den.

Ondoriozta daiteke, beraz, euskaraz berdin markatzen direla DS-ko (POS-S-O) osagai guztiak, eta guztiak¹⁶ igotzen direla nahiko gora, hots, QS bera baino goragoko [POSS-Esp]-ra eta bertan espezifikatzaile anitzeko konfigurazio bat sortzen dute.

¹⁶ IS biluziak dira salbuespenak, baina hura azaltzeak luze joko liguke, ondorioz, Artiagoitia (2009)-ra jotzea gomendatzen dut.

5.4. Euskara vs. gainerako hizkuntzak

Euskara den hizkuntza ergatibo-absolutiboak nominalizazioaren baitan hizkuntza nominatiboan jokaera du, eta era berean, gaztelania bezalako hizkuntza nominatibo-akusatibo batean eredu ergatiboaren arabera gauzatzen da kasu markaketa izenetik deribatutako nominalizazioetan. Aipatu berri dudana, garatuago azalduko dut Alexiadou (2017) abiapuntu izanik.

Euskara (41a-b) hizkuntza ergatibo-absolutiboa da, hau da, iragangaitzeko subjektua eta iragankorreko objektua absolutiboz markatzen dira eta iragankorreko subjektua ergatiboz. Honenbestez, hizkuntza ergatibo-absolutiboa dela ondoriozta dezakegu. Guztiok ados gaude, esaterako, gaztelania (41c-d) edo ingelesa hizkuntza nominatibo-akusatiboak direla aitortzean, hots, subjektuak beti nominatiboz eta objektuak beti akusatiboz markatzen direla.

- (40)
- a. Emakumea jakintsua da.
 - b. Herritarrek beraien hizkuntza maite dute.
 - c. Peru ha desaparecido.
 - d. Peru ha comprado una cerveza.

Alexiadou-k (2017) adierazten duen bezala, zenbait ikerketak azaleratu dute hizkuntza nominatibo-akusatibo batzuk nominalizazioaren baitan eredu ergatiboaren arabera gauzatzen direla. Hizkuntza horietako batzuk dira gaztelania, ingelesa, grekera, katalana, frantsesa, italiara... Hauetan barne argumentua genitiboz markatua dago, baina ezinezkoa da kanpo argumentua ere *de/des* genitiboz markatua egotea (nire belarrientzat, behintzat), sintagma era horretara, ez-gramatikala litzatekelako (42b) (42d); hortaz, *por/par* preposizio sintagma batekin ageri dira perpaus pasiboen antzera (42c) eta (42e) (Alexiadou, 2017).

- (41)
- a. La desaparición de Peru.
 - b. *La compra de una cerveza de Peru.¹⁷

¹⁷ Hala ere, Ticiok (2010: 29) aditzera ematen du gaztelaniaz nominalizazioetan posible dela perpaus berean *de* genitiboa behin baino gehiagotan ezartzea:

i. La destrucción de Roma de los bárbaros.

- c. La compra de una cerveza por Peru.
- d. *La destruction de la ville des soldats (Alexiadou, 2017: 358 (8a)).
- e. La destruction de la ville par les soldats (Alexiadou, 2017: 358 (8b)).

Bestalde, euskaraz *irudi* izenetan ikusi bezala (ikus 16), hiru genitiboek (POS-S-O) *-en* genitiboz markatuak daude; beraz, ez dago inolako bereizketarik genitiboen arteko markaketan.

Ondorioz, euskaraz nominalizazioak neutraldu egiten ditu argumentu guztiak, hau da, kasuak neutralizatu egiten dira izen-sintagmaren edo DS-ren mailan; aldiz, goian aipatutako hizkuntza horiek (gaztelera, ingelesa, grekera...) eredu ergatiboaren arabera gauzatzen da nominalizazioaren baitan.

6. DATIBOA GENITIBOA BIHUR DAITEKE?

Genitiboak subjektu eta objektu funtzio gramatikalak ordezkatu ditzakeela egiaztatu ostean, interesgarria deritzot datiboarekin gauza bera egiteko aukerarik duen aztertzeari. Horrenbestez, auzi horren inguruan egondako iritziak bilduko ditut jarraian; batzuek posible dela diote Fernándezek & Sarasolak (2010); besteek, aldiz, ezinezkotzat dute (Elordietak 2001 eta Artiagoitia 2012).

Elordietak (2001: 72) azaltzen du, ingelesaren eta alemanieraren kontrara, euskaraz perpausak bi objektuz osatutako egitura badu, aditz ditransitiboa kasu, ezin daitezkeela nominalizatu. Hau da, zeharkako-objektua ezin daiteke aditzetik eratorritako nominalizazio baten egituran adierazi; aurreko (32) oinarri hartuta, aintzat hartu (42) multzoa. (42b) adibidean, perpausa ez-gramatikala da datiboaren adierazpenak huts egiten duen heinean; beste era batera esanda, *amaren* izenlagunak ez du datiboen esanahia edo Θ -rolez baliatuz gero, onuradun rola. Hala ere, euskaraz izen eratorria datibo argumentuarekin posible izateko baliabide bat dagoela gaineratzen du Elordietak, perpaus jokatugabearen erabilera, hain zuzen ere; erreparatu (42c)-ri.

- (42) a. Anek amari arrosak erosi dizkio.
- b. * Aneren amaren arrosen erosketa.
- c. Anek amari arrosak erosteari ondo deritzot.

Fernández & Sarasolak (2010), aldiz, datiboak bitan banatzen dituzte goi (esperimentatzaile¹⁸ eta jabe edo interes) datiboak eta behe datiboak. Lehenbizikoei dagokienez, Artiagoitiak (2012) dio ez-gramatikalak direla (cf. 43b eta 43d) eta ni ere iritzi berekoa naiz; sintagmak horiek arrotzak iruditzen zaizkit, aurreko gramatikalariek ontzat badituzte ere:

- (43) a. *Begitazioa/begitanduera umeei / *Umeei begitazioa / begitanduera.
b. Umeen begitazioa / begitanduera.
c. Gogorapena umeei / *Umeei gogorapena.
d. Umeen gogorapena.

(Fernández & Sarasolak, 2010: 65 (29)).

Bigarrenei dagokienez, anbiguetatea eragiten dute, hau da, genitiboak ergatiboa zein datiboa ordezkatzekoan, emaitza bat bera da; ikus (45):

- (44) a. Artzainak omenaldia.
b. Omenaldia artzainari (Fernández & Sarasola, 2010: 66 (33c)).
c. Artzainaren omenaldia (Fernández & Sarasola, 2010: 66 (33d)).

Hori dela eta, Fernández & Sarasolak adieraziak adierazi, bat egiten dut Elordieta eta Artiagoitiarekin, hau da, datiboa ezin bilaka daiteke genitibo oro har. Horrez gain, Artiagoitiak (45c) adibidearen anbiguotasuna posesiboaren anbiguetatearen arazoa dela dio eta datibotik ez dela genitiboaren interpretazioa abiatzen edo sintaktikoki eratoritzen adierazten du. Hala ere, ez dut txartzat hartuko, baina bai esango dut, kasu horietan Fernández & Sarasolak (2010: 67) aipatzen duten bezala, testuinguruak berak zehaztu beharko duela genitiboaren interpretazio zuzena.

7. ONDORIOAK

Lan osoan zehar aipatutakoa eta azaldutakoa laburbilduko dut jarraian, baina, hala ere, argi utzi gura dut jorratutako atalek ikerketarako bide irekia uzten dutela eta nire lanak ikerketa sakonago baten beharrezana agerian uzten duela azpimarratuko nuke.

¹⁸ Albizuk (2009) esperimentatzaileak ez-gramatikaltzat ditu eta interes edo jabe datiboak zalantzagarriztat (Fernández & Sarasolak, 2010: 64).

Lehenik eta behin, *-(r)en* eta *-ko* atzizkiek perpausean egiteko ezberdinak dituztela aztertu dut; lehena, argumentuen ezaugarrietara hurbiltzen da, bestea, adjuntuen edo DS kategoriakoak ez diren argumentuen jokabidera; horrenbestez, *genitiboa -(r)en* atzizkia, soilik, izendatzeko erabiltzea erabaki dut.

Ondoren, EGLUren (1985) izenlagunaren azalpen deskriptiboak eta Trask (1985) eta Goenagaren (1991) IS-ren egitura sintaktikoak ikusarazi didate adjektibotzat, hots, adjuntutzat, dituztela izenlagun (ia) guztiak. Horrek dakartzan arazoez jabetzeko, DSH-ra jo dut eta Eguzkitza (1993) eta Artiagoitiaren (1998) azalpenak jarraituz, genitiboek funtzio anitzak dituztela eta horien arabera, DS-n kokapen ezberdina dutela azaldu dut.

Ostean, izen motaren arabera (izen arruntak, argumentudun izenak eta aditzetik eratorritako izenak) genitiboen funtzio edo interpretazio ugariak aztertu ditut eta ondorioztatu izenaren DS argumentuak adierazten dituela.

Jarraian, kasuak eta postposizioak azaldu ditut eta, behin bien ezaugarriak argi izanik, genitiboa kasutzat hartzea hobetsi dut; izenean ageriko komunztadura ez duen arren, *-ko* eranstea ez duelako posible, eta kasuen antzera funtzio gramatikalen adierazlea delako.

Kasu genitiboa nola gauzatzen den aztertu dut hurrena; aurretik egun dauden bi metodoak azaldu (berezkoa eta egiturazkoa) eta egiturazko-kasuaren bitartez gauzatzen zaiola ondorioztatu dut.

Amaitzeko, genitiboa datibo ezin bilaka daitekeela ondorioztatu dut (salbuespenak albuespen).

8. BIBLIOGRAFIA

- Abney, S., (1987), *The English Noun Phrase in its Sentential Aspect*, MITko doktorego tesia.
- Alexiadou, A., L. Haegeman & M. Stavrou., (2007), *Noun phrase in the generative perspective*, Berlin: Mouton de Gruyter.
- Alexiadou, A., (2017) “Ergativity in nominalization”, in J. Coon, D. Massan, eta L. D. Travis (arg.) *The Oxford Handbook of Ergativity*, Oxford, Oxford University Press: 355-372.
- Artiagoitia, X., (1998), “Determinatzaile sintagmaren hipotesia euskal gramatikan”, *Uztaro*, 27: 33-61.
- Artiagoitia, X., (2000), *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*, Gasteiz, Arabako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Artiagoitia, X., (2009), “Jabetza-genitiboaren sintaxia eta erkatze anizkuna”, *ASJU*, XLIII: 97-118.
- Artiagoitia, X., (2011), “Osagarria hautatzen duten izenak”, Sareko Euskal Gramatika (SEG), [2018/03/15], <<http://www.ehu.eus/seg/morf/5/6/3>>.
- Artiagoitia, X., (2012), “Genitive case and multiple checking in Basque”, in U. Etxebarria, R. Etxepare & M. Uribe-Etxebarria (arg.), *Noun phrases and nominalization in Basque*, Amsterdam/Philadelphia, John Benjamins: 209–242.
- Aurnague, M., (2002), “Euskal “genitiboan” semantizarantz meronomien ildotik”, *Gogoia* 2.1., ILCLI & EHU: 69-84.
- Duguine, M., (2010), *Argumentu isilak eta hizkuntza aldakortasuna*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Eguzkitza, A. (1993) “Adnominals in the grammar of Basque”, in Hualde, J.I. & J. Ortiz de Urbina (arg.) *Generative Studies in Basque Linguistics*, Amsterdam, John Benjamins: 163-187.

- Eguzkitza, A., (1997), “Kasuak eta postposizioak: deklinabidea eta postposiziobidea”, *Hizpide*, 40: 39-52.
- Elordieta, A., (2001), *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, Utrecht, LOT.
- Euskaltzaindia, (1985), *Euskal gramatika. Lehen urratsak I*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Fernandez, B., (datarik gabe) "Noren", Sareko Euskal Gramatika (SEG), <<http://www.ehu.eus/seg/morf/5/5/7>>, [2018/03/18].
- Fernandez, B. & Sarasola, I., (2010), “Marinelei abisua: izen ondoko datibo sintagmak izenburuen sintaxian”, *Lapurdum XI*: 55-75.
- Goenaga, P. (1985), “Complementización y nominalización en euskara”, *Anuario del Seminario «Julio de Urquijo» XIX-2*: 493-570.
- Goenaga, P., (1991), “Izen sintagmaren egituraz”, in J. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, EHU/UPV, Donostia: 847-865.
- Goenaga, P., (2003), “-en eta -ko atzizkiez berriro”, in J. M. Makatzaga eta B. Oyharçabal (arg.), *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian Iker 14 (1)*, Bilbo, Euskaltzaindia: 279-303.
- Gondra, A., (2014), “Different types of nouns, different types of projections”, *Iberia*, 2: 1-26.
- Grimm & McNally, (2014), “No ordered arguments needed for nouns”, *Proceedings of the 19th Amsterdam Colloquium*, 1: 23–30.
- Krajewska, D., (2018), “Erlazio-atzizkia eta hitz-ordenaren aldaketa”, (argitaratzeko).
- Ticio, M., (2010), *Locality Domains in the Spanish Determiner Phrase*, Springer, NY, USA.
- Trask, R. L., (1983), “Euskal izen sintagmaren egituraz”, in Euskaltzaindia, *Piarres Lafitteri omenaldia*, Bilbo: 599-611.

Trask, R. L., (1985), “-Ko atzizkia euskaraz”, *Euskera* XXX: 165-173.

Zabala, I., (1999), “Izen-sintagma konplexuak: adjektiboen eta izenlagunen segidak” in
J. C. Odriozola (arg.) *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*, Bilbo, UPV/EHU:
107-157.